

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK

2024-2025 ikasturtea

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua
Ebaluazioa Atala

1. ZER DA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA?

Ebaluazio diagnostikoa hainbat gaitasun-probaren bidezko ebaluazioa da, Hezkuntza Departamentuak urtero burutzen duena Nafarroako ikastetxe guztietan. Bi mailatan egiten da, Lehen Hezkuntzako 4. mailan (LH 4) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan (DBH 2).

2. ZEIN GAITASUN EBALUATZEN DIRA?

Maila eta hizkuntza-ereduaren arabera:

LHko 4. mailan:

B eta D ereduak	A eta G ereduak	1. Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna
		2. Ingelesezkko hizkuntza-gaitasuna
		3. Matematikarako gaitasuna
		4. Euskarazko hizkuntza-gaitasuna

DBHko 2. mailan:

B eta D ereduak	A eta G ereduak	1. Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna
		2. Ingelesezkko hizkuntza-gaitasuna
		3. Matematikarako gaitasuna
		4. Zientzietarako gaitasuna
		5. Euskarazko hizkuntza-gaitasuna

3. NOIZ EGINGO DIRA PROBAK?

DBHko 2. mailan, apirilaren 11n, 14an eta 15ean.

2025eko APIRILA						
Al	As	Az	Og	Os	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

LHko 4. mailan, maiatzaren 8an, 9an, 12an eta 13an.

2025eko MAIATZA						
Al	As	Az	Og	Os	Lr	Ig
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

4. NON EGITEN DIRA PROBAK?

Ikastetxean bertan, ohiko geletan eta bertako irakasleekin.

5. NORK ANTOLATZEN DU EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA?

Hezkuntza Departamentuak proben prestaketa koordinatu eta gainbegiratzen du, eta materiala inprimatu eta banatzen du.

Espezialitate bakoitzean aditu-talde batek prestatzen du proba bakoitza.

Ikastetxeetako irakasleek probak aplikatu eta zuzentzen dituzte.

6. ZEINTZUK DIRA EBALUAZIO HONEN EZAUGARRIAK?

- **Zentsala da:** ikasle guzti-guztiek egiten dute.
- **Estandarizatua da:** ikasle guztiek proba berberak egingo dituzte, egun eta ordu berean.
- **Zehatza eta objektiboa da.**
- **Gaitasun-izaera du:** etapan zehar lorturiko gaitasunak neurtzen dira.

7. ZERTARAKO BALIO DU EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK? ORIENTATZEKO, HOBETZEKO ETA INFORMATZEKO.

- Hezkuntza Departamentuak, **bere jarduerak bideratu ahal izateko**, hezkuntza-sistemaren mailari buruzko informazioa eskuratzeko eginkizuna du ebaluazio hau.
- Ikastetxeek **hobekuntza-planak** ezartzeko eta berariazko neurriak hartzeko tresna da ebaluazio hau.
- Familiek eta ikasleek **informazio osagarria** jasotzen dute.

8. NOLA AZTERTZEN DIRA EMAITZAK?

LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek onlineko testuinguru-galdetegi bati erantzuten diote, **ikastetxearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEKa)** lortzeko aukera ematen duena.

Horretan oinarritua, ebaluatutako gaitasun bakoitzean ikastetxearen zenbatetsitako puntuazioa kalkulatu da, hau da, ikastetxe bakoitzak bere testuinguru sozioekonomikoaren eta kulturalaren arabera lortu beharko lukeen puntuazioa.

Galdetegi honetan ikasleek emandako erantzunak erabat anonimoak dira (erabiltzaileak eta pasahitzak ez daude persona bati lotuta).

Ekainean hainbat txosten lortzen dira:

- **Orokorra:** Nafarroa osokoa.
- **Ikastetxearena:** ziklo edo departamentu bakoitzak eta zuzendaritza-taldeak nahitaez egin behar dituzte azterketa, balorazioa eta hobekuntza-proposamena.
- **Banakakoa:** familia bakoitzak gaitasun bakoitzeko emaitzen gaineko txosten bat jasotzen du.

9. EBALUAZIO HONEK AL DU ONDORIO AKADEMIKORIK IKASLEENTZAT?

EZ. Mailaz promozionatzea ez dago ebaluazio honen mende.

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

2024/2025 ikasturtea

Lege esparrua:

- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, 144. artikulua.
 - Ikasturte hasierako jarraibideak, 221/2024 Ebazpena, ekainaren 2koa: I. eranskina, I. B), 4.1. artikulua; II. Eranskina, I. B), 5. artikulua.
-